

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Zigor Isuskiza Arana jaunak, EH Bildu taldeko batzarkideak, **IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA** hauek aurkezten ditu, Las Carreras saihesbidearen behin behineko proiektuaren inguruan:

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 14an Imanol Pradales Gil Diputatuak aurkeztu zuen Las Carrerasesko saihesbidearen behin behineko proiektua.

Hori horrela izanda, **IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA** hauek egiten dizkiogu Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako sailari:

- Nork egin du behin behineko proiektua? Interbiakerek edo kanpoko enpresa batek?
- Proiektu horretan zenbat ibilbide alternatiba desberdinak aztertu dira?
- Zergatik aukeratu da martxoaren 14an aurkeztu zen alternatiba eta besteak alboratu?
- Azterketa horretan ibilbide alternatiborik aztertu al da Petronorren lurzoruetatik?
- Azterketa horretan kontuan hartu al dira ingurumen arloko ondorioak, akustikoak barne?
- Azterketa horretan kontuan hartu al dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren azpiegituretan izan ditzakeen afekzioak?
- Zeintzuk dira Bizkaiko Foru Aldundiak emango dituen hurrengo urratsak?
- Hurrengo urratsen eta izapideen egutegia zein izango da?
- Hurrengo urratsen eta izapideen aurrekontu ekonomikoa zein izango da? Banan banan zehaztuz.



eguna
fecha

2023 MAR. 23

Concilio / Registro de Entrada

000548

17:00

ehbildu

Bilbon, 2023ko martxoaren 23an



BEA ILARDIA OLANGUA
EH Bildu taldeko bozeramailea



ZIGOR ISUSKIZA ARANA
EH Bildu taldeko batzarkidea